



# HERRI 2017 UDALEKUAK

Matrikulazioa:  
Maiatzaren 15etik 26ra  
Igorreko Kultur Etxean

## Prezioa:

- Igorren erroldatutakoak:  
30€ asteko.  
- Neba-arreba bi: 25€  
- Hiru neba-arreba: 20€
- Ez erroldatutakoak:  
40€ asteko.  
- Neba-arreba bi: 35€  
- Hiru neba-arreba: 30€

## Datak:

1. astea: ekainaren 26tik  
30era
2. astea: uztailaren 3tik 7ra
3. astea: uztailaren 10etik  
14ra
4. astea: uztailaren 17tik  
21era
5. astea: uztailaren 24tik  
28ra

## PARKEAN JOLASEAN 2017

Ekainaren 26tik uztailaren 28ra,  
arratsaldez 18:00-20:00

**Dohainik!**



## HERRI UDALEKUAK 2017

(ekainaren 26tik uztailaren 28ra)

### MATRIKULAZIO ARAUAK

Matrikulazio epea **maiatzaren 15etik 26ra** izango da Igorreko Kultur Etxean. Aipatutako epea igarota, ez da matrikularik egingo. **Prezioa Igorren erroldatutakoentzat: 30€ asteko.** Neba-arreba bi direnean 25€ asteko ume bakoitzeko, eta hiru direnean 20€ asteko ume bakoitzeko. **Prezioa ez erroldatuentzat: 40€ asteko.** Neba-arreba bi direnean 35€ asteko ume bakoitzeko, eta hiru direnean 30€ asteko ume bakoitzeko.

Igorren erroldatutakoek lehenetasuna izango dute. Plaza kopurua gaindituko balitz, **zozketa publikoa egingo litzateke maiatzaren 29an.** Egun horretan bertan **behin behineko zerrendak** argitaratuko dira.

**Ordainketa egiteko eta osasun fitxa eta baimena aurkezteko epea maiatzaren 30etik ekainaren 2ra izango da.** Ordainketa Kultur Etxean edo transferentzia bidez egingo da (kontu-korrante zenbakiak Kultur Etxean eskatu ahal dituzue). **Azken kasu honetan ezinbestekoa izango da Kultur Etxera ordainagiria ekartzea.** Epe hori igarota ordainketa egin ez dutenen plazak itxaron zerrendan daudenei eskainiko zaizkie, plazari uko egiten zaiola ulertuko da eta.

**Ekainaren 5eko astean behin betiko zerrendak argitaratuko** dira.